



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2016KO MAIATZAREN 6AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Jesus Peñagarikano Labaka
Miren Itziar Arratibel Imaz

Etorri diren zinegotziak:

Arkaitz Fraile Quijera
Maria Iciar Jauregi Huarte
Maria Cristina Goya Amiama
Victoria Rodriguez Feloaga
Eleuterio Sanchez Garcia

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2016ko maiatzaren 6an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia Alkate izan zen eta Bitarteko Idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.2016KO APIRILAREN 22KO AKTAREN ONARPENA

2016ko apirilaren 22an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2016ko apirilaren 22an eginiko Gobernu Batzarraren akta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA:

2.- 2016KO APIRILAREN 26AN BURUTURIKO KULTURA ETA GAZTERIA BATZORDEAREN AKTAREN INGURUKO ERABAKIAK

2.1 SAN BARTOLOME JAIK 2016: JAIETAKO ESKU-PROGRAMAKO AZALAREN ETA KARTELAREN DISEINU LEHIAKETAREN OINARRIEN ONARPENA

Kultura eta Gazteria Batzordeak, Tokiko Gobernu Batzordeari 2016 urteko Ibarra jaietan erabiliko den esku-programaren azala eta kartela aukeratzeko lehiaketa bat egitea proposatzen dio. Lehiaketa horretan honako oinarri hauek erabiltzea proposatzen du:

2016KO IBARRAKO JAIETAKO DISEINU-LEHIAKETA: Oinarriak

Ibarra Udalak 2016ko Ibarra jaietako esku-programaren azala eta kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Ondoren zehazten ditugu lehiaketa arautuko duten oinarriak.

1.- Parte-hartzaileak.

Lanak aurkeztu ahal izango dituzte Ibarra bizi edota ikasten duten 15 urtetik gorako pertsona guztiek. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahal izango ditu.

2.- Gaia eta testua.

Ibarra jaiak 2016 izango da lan guztietan, ongi nabarmendurik, azalduko den testua. Ibarra jaiekin zerikusia duen ezaugarriren bat edota irudiren bat jaso eta adierazi beharko da.

Generoaren irudikapenean erabilitako irudiek oreka bilatuko dute, rol eta estereotipo tradizionalak azpimarratu gabe, eta sexu, arraza, adin, kultura edo sexu-aukeren arloan diferentzien tratamendu gutxiesgarria ekidinez.

3.-Tamaina.

Esku-programaren azalak 21x21 zentimetroko neurria izango du. Diseinua neurri horietan edo neurri horien proportzioan aurkeztu beharko da.

4.- Kolorea eta teknika.

Aukerakoa izango da. Aukeratutako teknika edozein delarik ere, diseinua paperean edo euskarri gogor batean aurkeztu beharko da 21x21 Zm-ko tamainan edo horien proportzioan.

Horretaz gain, formatu digitalean ere aurkeztu beharko da (JPG formatuan eta gutxienez 300 ppp-ko erresoluzioa izan beharko du).

5.- Lan originalak.

Aurkezten diren lanak originalak eta beste inon ez aurkeztutakoak izan behar dute.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

6.- Aurkezteko epea: 2016ko ekainaren 17a eguerdiko 13:00ak baino lehen.

7.- Aurkezteko lekua: Ibarako kultur etxea.

8.- Identifikazioa.

Aurkezten den lanarekin batera, eta kartazal itxi baten barnean, egilearen datuak sartuko dira (Izen-abizenak, helbidea, NAN zenbakia, adina eta telefonoa). Kartazalaren kanpoaldean eta aurkezten den lanaren atzealdean goitizena idatziko da.

9.- Informazio telefonoa: 943-670399

10.- Saria: 300 euroko sari bakarria izango da.

11.- Epaimahaia.

Epaimahaia 5 pertsonak osatuko dute. Bere erabakia apelaezina izango da.

12.- Erakusketa.

Lehiaketara aurkeztutako lanak Udalak jendaurrean erakutsi ahal izango ditu. Espazio eta egutegi kontua dela eta, Epaimahaia izango da zeintzuk jarriko diren erabakiko duena, beti ere, kalitate artistikoa kontuan hartuta.

13.- Lanak noiz jaso.

Saririk irabazi ez duten originalak aurkeztu ziren lekuan bertan jaso ahal izango dira 2016ko uztailaren 4tik 8ra bitartean, 10:00etatik 13:00etara. Epe horretan jaso ez direnekin Udalak erabakiko du zer egin.

14.- Saritutako lanaren jabetza.

Saritutako lana Ibarako Udalaren jabetzapean geratuko da eta nahi hainbat erreprodukzio egiteko eskubidea izango du. Erreprodukzio horiek egoki deritzon publizitate lanetan erabiltzeko ahalmena izango du Udalak eta kasu horietan autoreek ez dute inolako erreklamaziorik egiteko eskubiderik izango, eta jadanik eskuratutako sariaren zenbatekoaz gain beste diru-kopururik ere ezingo dute jaso.

15.- Kalteak.

Ibarako Udalak ez du bere gain hartzen lehiaketara aurkeztutako lanei gerta dakiekeen edonolako kalteren erantzukizuna.

16.- Oinarriak onartzea.

Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek erabat onartzea dakar berarekin.

17.- Interpretazioa.

Oinarrietatik eratorritzen diren zalantza eta desadostasunetan Ibarako Udalak interpretatzeko ahalmena izango du. Kultura Batzordea izango da lehiaketa honetan sor daitezkeen zalantza eta desadostasunak ebatziko dituen organo eskuduna.

2016ko apirilaren 26ko Kultura eta Gazteria Batzordearen diktamena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ERABAKIA

LEHENA: Onartzea San Bartolome jaietarako diseinu-lehiaketaren oinarriak

BIGARRENA: 2016 urteko maiatzean, diseinu-lehiketa martxan jartzea.

2.2 2015. URTEAN KULTUR TALDEEI EMANDAKO DIRU-LAGUNTZEN ZURIKETEN ONARPENA

2015eko maiatzaren 8ko 85. GAO on argitaratutako "Ibarrako irabazi-asmorik gabeko kultura talde eta elkarteei 2015. urtean garatuko dituzten jarduera eta egitarauetarako diru-laguntzak emateko oinarriak" oinarriari jarraiki, 2016ko otsailaren 26a baino lehen jasotako laguntzaren %100 zuritu behar zuten onuradunek.

- Diru-laguntzen zuriketa aztertuta, Kultura eta Gazteria Batzordeak bere proposamena egin zuen.

2016ko apirilaren 26ko Kultura eta Gazteria Batzordearen diktamena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu

ERABAKIA

LEHENENGOA: Alurr Dantza Taldeak, Hauspibarra kultur elkarteak eta Parrokiko koruak aurkeztutako diru-laguntzen zuriketari onespina ematea, eta ondorioz, zehazten denaren arabera, dagokien 2015eko diru-laguntzen geratzen den %40a ordaintzea:

TALDEA	40%
PARROKIKO KORUA	360,00 €
HAUSPIBARRA	3.480,00 €
ALURR DANTZA TALDEA	3.200,00 €
GUZTIRA	7.578,93 €

BIGARRENA: Ibarrako kultur elkarte eta taldeei dagokien 2015 urteko programazioa garatzeko diru-laguntzen %40aren guztirako 7.578,93 euroko gastua, onartuta zegoen modura, 1.0000.430.00.00 2015 "Kultur taldeei transferentziak" kontu-sailari egozte.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

HIRUGARRENA: Sendi-Ekintza elkarteak aurkeztutako diru-zuriketari onepen partziala ematea. Hori dela eta, elkarteak aitortutako eta aurkeztutako agiriek ziurtatzen duten balantze ekonomikoa ikusirik, zegokien %40a ez ordaintzeaz gain, jaso zuten diru-laguntzaren %60etik 383,72 euro Ibarra Udalari itzultzea.

LAUGARRENA: Alurr Dantza Taldeak dantza lokalaren mantenurako jasotako diru-laguntzaren zuriketari onespina ematea, eta ondorioz, geratzen den laguntzaren %40a ordaintzea:

TALDEA	40%
Azkueko lokala mantenua dirulaguntza	800,00 €

BOSGARRENA: Dantza lokalaren mantenuari dagokion gastua 1.0000.434.334.20.00 2015 "Dantza hitzarmena transferentzia" kontu-sailari egozte.

2.3 IBARRAKO UDALAK BELAUNTZAN DUEN LOKALA ERABILTZEKO BAIMENA EMATEA MUSIKA ENTSEGUETARAKO

Ibarra musika taldeek eta musikariek Udalak Belauntzan dauzkan musika entseguetarako lokalak erabiltzeko eskaria egin dute. Kultur Batzordeak eskaera guztiak aztertu ditu.

2016ko apirilaren 26ko Kultura eta Gazteria Batzordearen diktamena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu

ERABAKIA

LEHENENGOA: Ondoren zehazten diren musika talde eta musikariei, Belauntzako musika entseguetarako lokalak erabiltzeko baimena ematea:

1.- Musika taldeak:

- Barrua Truk (Ordezkarria: Josu Gabellanes Odriozola, NAN 72.457.601-B)
- Morgan ta CO2 (Ordezkarria: Estibaliz Etxeberria Sartal, NAN 72.507.468-Z)
- Gargantas desgarradas (Ordezkarria: Bittor Cid Gorria, NAN 72.488.920-G)



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Basajaun (Ordezkarria: Ander Pagola Sola, NAN 72.602.499-D)
- Deposito (Ordezkarria: Josu Balza Alvarez, NAN 72.465.069-G)
- Juan Rodriguez & Co (Ordezkarria: Juan Rodriguez Woroniuk, NAN X-7970443-T)
- Konbenio del metal (Ordezkarria: Ander Lizaso Solis, NAN 72.477.754-Q)

2.- Musikari bakarlariak:

- Jose Ochoa Sesma. NAN 15.793.987-W
- Jose Otxoa Santin. NAN 44.141.563-D

BIGARRENA: Lokalen erabilera arategian ezarritakoaren arabera, Tolosakoa den Ion Arruebarrena Altuna 44.332.330-Z NAN zenbakidunari bakarlari moduan lokalak erabiltzeko baimenik ez ematea.

HIRUGARRENA: Zehaztu diren musika taldeetako kide diren musikari guztiek eta musikari bakarlari bakoitzak Udalak zehazten dien kontu korrontean 80,00 euroko fidantza jartzea.

LAUGARRENA: Udalak musika talde bakoitzak zehazten duen ordezkariarekin zein eta musikari bakarlari bakoitzarekin lokalen erabilerarako kontratua sinatzea.

BOSGARRENA: Sinatzen den kontratuaren iraupena 2017ko abendura bitartekoa izatea.

SEIGARRENA: Musika talde bakoitzari lokalen sarrera nagusiko sarraila elektronikoaren 2 txartel eta dagokien entsegu-lokaleko sarrailaren 2 giltza eskuratzea.

ZAZPIGARRENA: Musikari bakarlari bakoitzari lokalen sarrera nagusiko sarraila elektronikoaren txartel bat eta dagokien entsegu-lokaleko sarrailaren giltza eskuratzea

HIRUGARRENA:

3.- 2016KO APIRILAREN 28AN BURUTURIKO HIRIGINTZA BATZORDEAREN AKTAREN INGURUKO ERABAKIAREN ONARPENA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

3.1 IBARRAKO SAN BARTOLOME PLAZAREN ESTALKIAN TOLDOA JARTZEA

Ibarrako udalak aldi bateko itxiera sistema jarri nahi du San Bartolome plazaren estalkian.

Estalitako eremuaren ezaugarriak kontuan izanda, ez da nahi itxiera hermetiko bat jartzea, baizik eta aldi batekoa. Zenbait ospakizunetan jendea babesteko haize eta euritatik, hala nola udako zinemaldian, herriko bazkarietan eta musika jaialdietan.

Estali beharreko eremuaren handitasuna eta aipaturiko eskakizunak aintzat hartuta, hainbat sistema aztertu dira, konponbide eta eskaintza ekonomikoekin batera. Hauexek dira: itxiera industrialeko sistema edo ate azkarra (Sacine), haize gogorretarako diseinaturiko granjetan erabiltzen den itxiera sistema (Seikin) eta argi handietako goitik-beheko zorroten toldoen sistema (Toldos Elosegui).

Sistematik ekonomikoena eta egokiena hark duen eragin estetikoagatik delako argi handietako goitik-beheko zorroten toldoen sistema da.

Sistema honi buruz aurrekontua eskatu zaie enpresa hauei: Persianas Egoki, Toldos Iraola eta Toldos Elosegui.

Eskatutako dimentsioetan toldo mota hori bakarrik Toldos Elosegui enpresak egin du eskaintza.

Gainerako enpresek ez dute eskaintzarik egin, ezin zutelako bermatu instalazioaren funtzionamendu egokia.

Ikusi da udal arkitektoaren txostena.

2016ko apirilaren 28ko Hirigintza Batzordearen diktamena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu

ERABAKIA

LEHENENGOA: Esleitzea Toldos Eloseguri I. eranskinean zehaztuko diren toldoak eta horien instalazioa. Guztira 31.126,28€, %21eko BEZ sartuta.

Ondorengo aurrekontu partidatik finantzatuko da: 601.153.30.00 2016

7

GB 20160506



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA: Jakinaraztea erabakia ondorengo enpresei Seikin, Sacine, Persianas Egoki, Toldos Iraola, Toldos Elosegui.

I ERANSKINA

Hauek dira toldoek bete beharreko eskakizunak:

Sistemak egiturara egokitu behar du eta dimentsio guztiak bete behar ditu, inolako tarteko pilare edo zoruko sistema finkorik jarri beharrik gabe, plazaren espazio-jarraitutasuna mugatu gabe.

Beharrekoza balitz zorua rasean inoxidablezko argollak jarriko dira.

Estali beharreko espazioaren dimentsioak, tarte librea HEB 240 zutabea x altuera librea habe nagusiaren beheko alde arte.

Toldo A: 10,31m x 5,51m
Toldo B: 10,31m x 5,26m
Toldo C: 8,64m x 4,64 m
Toldo D: 10,31m x 5,51m
Toldo E: 2,00mx 5,51m

Jaitsiera eta igoera sistema eskuzkoa izateaz gain, motordun sistema baten bidez egingo da, urrutiko kontrol bidez.

Toldoen ehunak bermatuko du kanpo erabilerarako iragazgaiztasuna eta erresistentzia mekanikoa.

Toldoek beteko dituzte arau hauek: UNE-EN 13561: 2004+A1 arauaren araberako prestazioa baldintzak eta haizearekiko sailkapen taula 3 motakoa izango da gutxienez (39-49 km/orduko).

Instalazioaren exekuzio epea hilabetekoa izango da esleitzen denetik.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

4.-GALDERA ETA ESKAERAK.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, goiburuko eguneko hamarrak eta berrogei direnean, lehendakariak bilera amaitutzat ematen du eta nik, bitarteko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut, bertan esandako eta erabakitako guztiaren berri jasoz.